



IZENBURUA:

V. Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusia: berrikuntzak

EGILEA:

Patxi Baztarrika

DATA: 2014/05/16

2014/05/16



Aurkibidea

Lehenengo zatia.....	3
1. Oinarrizko lege-arauak	3
2. Aurrekariak.....	3
4. Helburu orokorrak, zehar-lerroak eta neurriak.....	4
5. Administrazio atalen ezaugarriak eta hizkuntza eskakizunen derrigortasuna	6
6. Metodologia eta jarraipena.....	6
7. Berrikuntzak, labur	7
Bigarren zatia. Amets txikien iraultza	8
Hiru proposamen:.....	10



Gaurko hitzaldia bi zatitan banatu dut: lehenbizikoan, Eusko Jaurlaritzak V. plangintzaldirako onartu eta bideratu duen Euskararen Erabilera Plan Nagusiaren zertzelada nagusiak aletuko ditut, aletze horretan betiere Planaren berrikuntzak azpimarratuz. Bigarren zatian, aldiz, amets txikien iraultza deitu dudan gogoeta partekatzea proposatuko dut, etorkizun hurbilerako proposamen zehatz bezain irekiak azalduz.

Lehenengo zatia

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduan onartu zuen V. Plangintzaldian Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Nagusi berria. Jende askoren lanaren emaitza da, eta horiei guztiei nire esker ona adierazi nahi diet: HPSko zuzendaritza talde osoari, baina bereziki Gotzon Lobera eta Jokin Azkue zuzendariak; Administrazioetako Normalizazio zuzendaritzako Mari Jose Arrieta eta Xabier Larrañaga zebitzuburuei eta beren zerbitzuetako lankide eta teknikari guztiei; Jaurlaritzako Euskara Ataletako arduradunei eta Saitetako euskara teknikariak; Emuni, eta bereziki Idoia Illarramendi eta bere lantaldeari; Jaurlaritzako Saitetan aholkularitza lanetan lankide ditugun Elhuyarreko teknikariak. Eskerrik asko, guztiei.

1. Oinarrizko lege-arauak

Honakook dira aztergai dugun Planaren oinarrian ditugun lege-arauak:

1. Euskararen Legea
2. Auzitegi Konstituzionalaren Euskararen Legeari buruzko 1986ko epaia.
3. Euskal Funtzio Publikoaren Legea.
4. Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997ko Dekretua.
5. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua.

2. Aurrekariak

Aurrekari hurbilenekotzat, berriz, hiru nabarmenduko ditut:

- IV. Plangintzaldiaren ebaluazioan V. Plangintzaldiari begira jasotzen diren proposamenak.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).
- Eta HPSk V. Plangintzaldirako emandako irizpide orokorrak.

Eta aurrekariak ari garenez, konstatazio pare bat behar dira egin hasteko:



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Lehen konstatazioa: 1995ean, Jaurlaritzako langileen % 23 besterik ez zen lana euskaraz egiteko gai, baina gaur egun % 61 dira euskaraz neurri batean lan egiteko gai. Duela 20 urte halako bi t'erdi ta gehiago. Guztira, 4.052 langile.

Beste datu adierazgarri bat: lanean euskara erabiltzeko gai da Gobernu honetako goi kargudunen % 73: aukera ederra eta erantzukizun galanta!

Bigarren konstatazioa: aurrerakada hori oso apala izan da euskara lan hizkuntza gisa erabiltzerakoan; aurrerakada ez da izan ahal bestekoa, ez da izan ezta ere behar bestekoa. Hori da nire iritzia. Horregatik, Erabilera Plan honen ezaugarri nagusien artean nagusia da, Jaurlaritzan euskara laneko hizkuntza gisa nabarmen gehiago erabiltzeko neurriak hartu eta garatzea. Hori dugu erronka nagusia.

3. Eragin eremua eta helburu nagusia

EAEko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomiadunetarako da Plan hau (alde batera geratzen dira Justizia Administrazioa, Ertzaintza eta Osakidetza, horiek Erabilera Plan berariazkoak baitituzte). Lehen aldiz Sozietate Publikoetarako eredu bat proposatzen da. Horra hor Plan honen eskutik datozkigun berrikuntzetariko bat.

Helburu nagusia azaldu aurretik, har dezagun kontuan arau bat dugula sakratua dena: herritarren hizkuntza aukera errespetatzea. Eskubide hori errespetatzea da oren ginetik dagoena.

Helburu nagusiar dagokionez, gogoan hartzekoa da, gizarte osora begira, euskal gizartean elebitasun iraunkorra (sosteniblea) eraikitzea dela Eusko Jaurlaritzaren helburua. Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun daukagun euskara eta gaztelaniaren arteko elebitasun desorekatua gainditzen jarraitzea. Hori egin ezean, izan, bi hizkuntza izango ditugu, euskara eta gaztelania, biak ofizialak, baina ez genuke euskara bigarren mailako hizkuntza izateko arriskua saihestuko. Bi hizkuntza ofizialen arteko oreka eta berdintasuna ditugu gizartean helburu. Euskal gizartearen gogoia da bere Administrazioa egiazki elebiduna izatea. Eta guztiorren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetan ere bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun iraunkor eta orekatua dugu helburu.

4. Helburu orokorrak, zehar-lerroak eta neurriak

Lau dira Plan honen helburu orokorrak, eta badira, gainera, lau helburu orokor horietan guztietan eragina duten hiru zehar-lerro. Helburu orokorrak dira:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko harremanetan.
- Euskara lan hizkuntza izateko pauso zehatzak, neurgarriak eta aurreragarriak ematea.
- Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea.
- Goi kargudun politikoen lidergoa eta inplikazioa indartzea.

Horra hor beste berrikuntza garrantzitsu eta nabarmen bat, laugarren tokian izendaturiko helburu orokorra (eta horri loturiko zehar-lerroak), hain zuzen ere.

Eta, esan bezala, lau helburu orokor horiek garatzeko badira hiru zehar-lerro:



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Sailez Sail.
- Langileen eta erakunde-ordezkarik politikoen euskara gaitasuna handitzea.
- Langileen eta erakunde-ordezkarik politikoen euskararekiko atxikimendua eta adostasuna areagotzea.

Helburu orokor eta hiru zehar-lerro horietako bakoitzari adierazleak asignatu zaizkio, ebaluazioa erraztu eta ahalbidetzeko.

Lau helburu orokorrak eta hiru zehar-lerroak garatzeko neurri zehatzak finkatu dira Planean: guztira, 49 neurri. Gainera, aurreko Planekin alderatuta, berrikuntza garrantzitsu bat dago: helburu orokor eta zehar-lerro bakoitzaren jarraipenerako adierazleak finkatu dira. Guztira, 12 adierazle nagusi.

Helburuak nahiz neurriak zehaztasunez ezagutzeko modurik egokiena hitzaldi honi dagokion ppt-a edota Plan osoaren argitalpena (EHAA, 2014-01-24) kontsultatzea da. Nolanahi ere, aipaturiko 49 neurriak, zuzen zuzenean lotzen zaizkie herritaren hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean urrats eraginkorrak emateari, euskara lan hizkuntza gisa gaur egun erabiltzen denaren eta erabili litekeenaren arteko aldea pixkanaka gainditzeko bidean pausoak egiteari, administrazioen egitekoa izanik legeak bete eta betearaztea euskararen erabilerari dagokionez eredugarri izan daitezen beren arteko harremanetan euskara harreman hizkuntza ohikoagoa izateari, eta, azkenik, erakunde-ordezkarikien lidergoa indartu eta euskararen normalizazioa erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeari.

Bestalde, azpimarratu behar da, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak direla Planaren oinarri nagusietarikoa, eta irizpide multzo zabal bezain zehatza finkaturik da Planean. Azkenik, badira neurri zehatzak euskara lan hizkuntza gisa erabiliko duten eta erabiltzen duten langile eta erakunde-ordezkarik elebidunei trebakuntza eskaintzeko eta euskara gaitasuna hobe dezaten prestakuntzarako aukera emateko. Testuinguru horretan, lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak eta hauen derrigortasun datak berraztertzeke aukera eman zaio espresuki sail eta autonomiadun erakunde bakoitzari.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideei dagokienean, badira bi Jaurlearitzaen planetan berrikuntza direnez nabarmendu nahi ditudanak. Nabarmenduko nuke, erakunde-ordezkarikien agerraldi publikoetarako irizpidea ematen dela Plan honetan. Gobernuke erakunde-ordezkarikien euskararen erabilera agerraldi publikoetan % 29koa izan da aurreko Plangintzaldian. Plan berriaren arabera, euskaraz jarduteko gai diren goi kargudunek agerraldi publikoetan, oro har, emango diote euskarazko jardunari gutxienez gaztelaniazkoari ematen dioten pisua, bai denborari dagokionez, bai gaiaren tratamenduari dagokionez. Ahalegin berezia egin asmo dugu Legebiltzarrean eta hedabideen aurrean egiten diren mintza jardunetan.

Nabarmendu nahi dut, baita ere, kontratazio administratiboan kontuan hartu behar diren hizkuntza irizpideen jarraipen iraunkorrerako sistema berariazko bat finkatzen dela. Irizpide horiek indarrean daude Eusko Jaurlearitzan 2006ko otsailetik, eta V. Plangintzaldirako ere espresuki berretsita geratu dira, berariazko jarraipen-sistema eta guzti.

Azkenik, kontuan hartu behar da, Sail eta erakunde autonomiadun bakoitza Erabilera Plan Nagusi honen aplikazio eta kudeaketarako bere egitasmo espezifikoa egituratzen ari dela, 2014-2015erako hogeitau Kudeaketa Plan hain zuzen ere.



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

5. Administrazio atalen ezaugarriak eta hizkuntza eskakizunen derrigortasuna

97ko Dekretuari jarraiki, eta egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, plangintzaldi honetan 3. helburu mailakatua betetzea dagokio Jaurlaritzari. Horregatik, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen kopuru altua kontuan hartuz, atal elebidunak eta euskarazkoak finkatzear daude, bai gazteriarekin zuzeneko harremanak dituzten arloetan, baita ere herritarrekiko zuzeneko lehen harremana duten zerbitzuetan ("Zuzenean" zerbitzuan eta antzekoetan), eta, oro har, gizarte izaerako zerbitzua ematen duten arloetan, ahantzi gabe izaera orokorreko atalak.

Erabilera Plan honetako indizea % 48,46 da, aurreko Plangintzaldikoa baino 4,59 puntu altuagoa.

Honetan ere bada beste berrikuntza bat ere: derrigortasun indizea, Jaurlaritzak orain arte bezala bere osotasunean eta batez bestekoan ez ezik, Sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak ere bete egingo du. Indize hori gutxieneko abiapuntutzat hartzen da Erabilera Planean. Jaurlaritzak legeria urratuko luke derrigortasun indizea hortik behera aplikatuko balu, eta beharrezko den kasuetan hortik gora jo dezake, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2011n emandako epaiaren arabera. Guztira bederatzita dira indize horren aplikaziorako irizpideak (hitzaldiaren ppt-an nahiz Planaren argitalpenean kontsulta litezke).

6. Metodologia eta jarraipena

Planaren metodologiaren ezaugarri batzuk aipatzera jarrita, ondorengok nabarmenduko nituzke:

- Diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo batetik abiatzen da.
- Gidari edo iparrorratza Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira.
- Emaitzetara bideratutako metodologia da, eta bateratua, Sail guztiak eta erakunde autonomiadun guztiak bide bertsutik ibil daitezten.
- Helburu bakoitzak adierazle propioak ditu.
- Eta badu antolakuntza egitura bat.

Euskararen Erabilera Plan hau Jaurlaritza osoaren Plan Nagusia da, eta Plan honen garapenerako Sail bakoitzak bere Erabilera Plana egin berri du eta, udarako, 2014 eta 2015erako kudeaketa plan propioa bukatuko du. Eta horretarako organo eragileak Saitetako Euskara Atalak dira.

Sail bakoitzak bere komunikazio egitasmo propioa du dagoeneko.

Erabilera Planak Jaurlaritza osoari eragiten badio ere, zuzeneko parte hartzaile nagusiak izango dira:

- Jendaurreko eta gazteriarekin erlazionatutako ataletako langileak.
- Atal elebidunetakoak.
- Dagokien hizkuntza eskakizuna –derrigorrezko dataduna- egiaztatuta dutenak.
- Gainera, aukera izango dute parte hartzaile zuzenak izateko, eurek hala nahi badute, hizkuntza eskakizuna –nahiz eta derrigortasun datarik gabe eduki– egiaztatuta dutenak.



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Helburua da parte-hartzaileek gutxienez funtzio komunikatiboren bat edo beste betetzerakoan euskara erabiltzea lan hizkuntza gisa.

Ebaluaziorako, berriz, hiru epealdi finkatu dira: urtez urtekoa, tarteko ebaluazioa (2015eko amaieran egingo dena) eta amaierako ebaluazioa (2017ko amaierako Planaren betetze maila aztertuko duena). Jarraipenaren ardura Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrarena da, eta HPS izango da ebaluazio txostenak egingo dituen.

Azkenik, antolamendu eta egiturari dagokionez (xehetasunak Planaren argitalpenean daude ikusgai), esan behar da antolakuntzako organo batean edo bestean parte hartzen dutela Salletako Euskara Atalek, hizkuntza normalizazioko teknikariek, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak, IVAPek, Langileen Batzordearen ordezkariak eta HPSk. Nolanahi ere, Erabilera Planaren zutoin nagusia legealdi honetan eraturiko Salletako Euskara Atalak dira.

Erabilera Plan nagusi hau osatzen da Jaurlaritzaren sozietate publikoetarako erabilera plan eredu batekin, eta hau da, hasieran esan bezala, V. Plan honen beste berrikuntza bat, oraingoan egin baita lehen aldiz.

7. Berrikuntzak, labur

Mintzaldiaren lehen zatiaren amaiera moduan, Jaurlaritzaren aurreko Euskararen Erabilera Planekiko aldaketa edo berrikuntza nabarmenenak aipatuko ditut segidan:

- Sail bakoitzean Euskara Atala sortu da. Salletako Euskara Atalak dira Erabilera Planaren zutoin nagusia.
- Helburu orokor eta zehar-lerro bakoitzaren jarraipenerako adierazleak finkatu dira: 12 adierazle nagusi eta azpi-adierazleak.
- Funtzio Publikoko Sailburuordetzak egin beharrean, Sail bakoitzak egingo du bere arloko lanpostuei hizkuntza eskakizunak asignatzeko eta legozkiekeen derrigortasun datak ezartzeko proposamena.
- Derrigortasun indizea gutxienekoa izango da, eta Jaurlaritzak bere osotasunean ez ezik, Sail bakoitzak ere bete egingo du.
- Lehen aldiz, Jaurlaritzaren sozietate publikoetarako erabilera plan eredu bat onartu da.
- Erakunde-ordezkarien (goi kargudunen) agerraldi publikoetarako hizkuntza irizpideak finkatu dira.
- 2006ko otsailetik indarrean dauden kontratazio administratiborako hizkuntza irizpideen aplikazioaren jarraipen iraunkorrerako sistema finkatu da.
- Goi kargudun politikoen lidergoa garatzea helburu espezifiko legez finkatu da.



Bigarren zatia. Amets txikien iraultza

Hitzaldi honen bigarren zatiari izen propioa jartzea pentsatu dut: "Amets txikien iraultza". Akaso norbait harritik zuen izenburuak. Aitor dezadan Xabier Leteren olerki eta hainbat artikulutatik jasotako kontzeptua dudala hau, gehiagotan ere erabili dudana: "Nik ez dut amets haundirik" kantatzen zuen, eta hitz haietan dago nire gaurko erabilera honen sorburua

Azkenaldian, ametsaren irudia eta amets handiaren gaineko gogoeta behin baino gehiagotan erabili izan du Jon Sarasuak, fin asko erabili ere, euskararen ibilbideaz ari dela. Niri neroni oso sugerentea izan zait beti metafora hori hainbat gorabeheraz hausnartzeko, eta uste dut aproposa dela euskararen plazarako. Bide horretan barrena, hizkuntza politikaren arloan ditugun erronka handiei aurre egiteko, "amets txikien iraultza" kontzeptuari heldu nahi nioke nik, Xabier Leteren handiak maisuki adierazitakoarekin bat eginez: "Nik ez dut amets haundirik / zeru ederrik eskaintzen (...) bat bateko librakuntzaz / ez dut aspaldi sinisten".

Azken urteotako euskararen bilakaera hazkunde jarraitu baten kronika dela adierazi izan dut sarri, era askotako forotan. Baina, aldi berean, argi eta garbi azpimarratu dut, baita ere, "dena eginda dago" bezalako mezu lasaigarri bezain okerrik ezin dugula aireratu. Guztiz garrantzitsua iruditzen zaidalako eginkizun dugunaren korapiloez kontzientzia hartzea.

Adibidez, hazkunde jarraitu hori ez da bat eta bera izan, neurriari dagokionez, arlo guztietan. Aurrerakadaren tamaina desberdina izan da arlotik arlora: hezkuntzatik administraziora, zerbitzu publikoetatik merkataritzara, lagunartetik lan mundura, etxetik kalera. Eta gaur hona bildu gaituen arloari zuzenean lotzearen, esan dezadan lehenbailehen: administrazio publikoetan asko aurreratu du euskarak; egindako ahalegina kontuan harturik, ordea, ez da lortu lortu izan zitekeen emaitzarik egokiena.

Administrazioan sekula baino euskaldun gehiago ditugu gaur, dela langileen artean, dela agintarien artean. Baina, ateratzen ote diogu egoera honi atera geniezaiokeen fruiturik onena? Uste dut hemen gauden guztiok bat etorriko garela ezezkoan. Honen aurrean, beraz, galdera nagusietako bat da nola aktibatu dezakegun gaur dugun ahalmen hori. Erantzuna era askotakoa izango da halabeharrez: trebakuntza berezitua, hizkuntzarekiko leialtasuna eta lidergoa, hizkuntza ohituren kudeaketa... ez da izango erantzun bakar eta handi bat, erantzun txiki askoren multzoa baizik.

Gizartea eraldatzen ari da abiada handian, eta euskararen hazkunde jarraituak berak ere sortu du errealitate sozial guztiz berri bat: euskaldunaren profila zeharo aldatu da. Horregatik, euskararen bilakaeran eta erabileran faktore askok eragiten dutela jabetuta jokatu behar dugu. Izaera anitzeko faktoreak: estrukturalak batzuk, eta subjektiboak besteak. Korapilo berriak dira. Mugitzen ari garen seinale. Erne egotea eskatzen digute.

Eraldaketa handiak egin ahal izatea, eta eraldaketa horiek benetako gizakiaren neurrian egitea, eraldaketa txiki, amets txiki, asko gauzatzearen baitan dago. Eta elkarrekin egin beharreko lana dugun hori, inondik etortzekotan, berrikuntzaren bidetik helduko da.



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Langintza horretan, testu filosofikoak gogoko dituzuenok ezaguna duzuen Karl Popper filosofoa har genezake gidari, haren “aieru-errefusapen” eta “entsegu/huts egite” dinamika izango baitugu ezinbesteko lanabes. Dinamika hori, zientziagintzaren akuilu izan den neurri berean, antidoto eraginkor izan dezakegu gure eremuan hain errotua dagoen “hau beti egin da horrela” lelo kontserbadorearen kontra. Azken finean, huts egiteko beldur geldiarazlea uxatu behar dugu gure baitatik. Eta horretarako berrikuntza proiektuak eta berrikuntza-guneak behar ditugu.

Euskararen inguruko diskurtsoetan ausardia behar da, horretarako. Ausardia, berrikuntza sakonei ekiteko; ausardia, amets txikiei etekin handia ateratzeko; ausardia, lankidetzaren leialdean aritzeko, aurrejuzkuak alde batera utzita. Ausardia, onartzeko, amets txikiak betetzeko bidea egitea dela helburu handietara hurbiltzeko modu bakarra.

Jarraian azalduko ditudan proposamen irekiak dira, guztiz irekiak, elkarrekin lantzekoak eta aberastekoak. Eta proposamen hauen abiapuntuan, konpromiso sendo bat dago: Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza politikaren alorrean hain garrantzizkoa den eremu honetan, administrazioaren eremuan, V. Plangintzaldiaren testuinguruan, berri egin nahi du, eta berri egingo du, eta eginkizun horretan, besteak beste zuekin, euskara teknikariok eta arloko profesionalekin, batera lan egin nahi du. Izan ere, egiten den hori bera berritzailea izateaz gain, egiteko moduak ere (elkarrekin eta elkarrentzat, Udaltop honetako leloari jarraiki) ekarpen berritzailea izan behar du.

Estrategia berritzaileak behar ditugu, beraz, eta horiek bultzatuko ditu Jaurlaritzak, “elkarrekin berri” eta “elkarrekin irabazi” ideiak oinarri hartuta. Ahalegindu behintzat, ahaleginduko gara.

Berrikuntza sistematikoki egiteko, berrikuntza-guneak behar ditugu. Horregatik, V. plangintzaldian jasotzen diren erronka eta korapiloak erantzuteko berrikuntza-gune iraunkorrak sustatu nahi ditugu, berrikuntza beharrik edo lehentasunik handiena duten gaien inguruan esperientziak garatzeko, unibertsitateko ikertzaileen eskutik, besteak beste. Asmoa da, premiazko gaietan eta helburu definituekin berrikuntza-guneak osatzea eta berrikuntza proiektuak garatzea. Behar dugu inbertitu ikerketan, garapenean eta berrikuntzan.

Eta berrikuntza, lehenago ere esan dudanez, elkarrekin egin nahi dugu, berrikuntza denontzako delako ezinbestekoa. Unibertsitatearekin eta euskara teknikariek, askoren arteko elkarlanean berri egin nahi dugu. Berrikuntza proiektuetan sortzen den ezagutza teoriko-aplikatua proiektu taldeetan parte hartzen duten euskara teknikariek gain, gainerako euskara teknikariek ere bereganatu eta barnerratzeko bitartekoak abian jarriko ditugu.

Asmatuko dugu elkarrekin aritzeko eta elkarlanerako formula, eta kontuan hartuko ditugu, nola ez, orain arteko egiturak:

- HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea: Jaurlaritza, 3 Foru Aldundiak, 3 hiriburuetakoko udalak, UEMA eta EUDEL).
- Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan udal, mankomunitate eta kuadrillatoko euskara teknikariak koordinatzeko guneak: Alkarbide, Udaltop Ekin...
- Eskualdeka ere udaletako euskara teknikariak elkarrekin garatzen dituzten hainbat ekimen eta lan ildo: Buruntzaldean, Oarsoaldean, Debagoienean, Debabarrenean...



UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

- Eusko Jaurlaritzako Saitetan diharduten euskara teknikarien bilgunea.

2015-2017 epealdian landu nahi ditugun gai edo arlo posibleak proposatuko dizkizuet orain. Esan beharrik ez dago proposamen guztiz irekia dela.

Hiru proposamen:

1. Nola sustatu erakundeetako liderren hizkuntza jokaera eredugarriak?

Eralanen ildoan, merezi du lidergo eraldatzailearen bidetik orain arte egindako lanari jarraipena ematea, ikusi delako hainbat kasutan lagundu egiten diola euskara teknikariari bere erakundeko lider eta arduradunekin lan egiteko modu berri batera eta harreman-modu berri batera iristen.

2. Nola igaro gaztelaniazko hizkuntza erabileratik euskarazkora?

EAEko egungo egoera soziolinguistikoa, eta azken urteotan izan dugun bilakaera kontuan hartuta, garrantzi handikoa da euskara ikasi duten erakundeetako lankideen portaera, gaztelaniatik euskarara pasatzeari dagokionez.

Praktikara begiratuz, Eusko Jaurlaritzako Saitetako zenbait zuzendaritzatan (Enplegu Zuzendaritza eta Gazteria Zuzendaritza) Aldahitz programa abian jarri da. Gure azken balorazioan, esperientzia positibotzat jo dute inplikaturako langileek: "eusle" naturalak (aurretik euskaraz egiteko joera zutenak) eroso sentitu dira, eta eskertu dute horrelako ekimen bat abian jartzea. Hauek lankide batzuekin aurretik izandako gaztelaniarako joera euskarara aldatu dute. Bestalde, euskaraz "kostata" aritzen direnek eta ezagutza erabilera bihurtu nahi dutenek eskertu dute proiektuaren garapena.

3. Zer egin erakunde-ordezkariek jendaurreko ekitaldietan euskara gehiago erabili dezaten?

Guztiz beharrezkoa dugu, askotan errepikatu dugunez, erakunde publiko eta pribatuek beren eguneroko jendaurreko jardunean, euren ohiko jarduera publikoan euskara gaur baino gehiago erabiltzea. Baina gai honetan ere, aldaketak ez dira gauetik goizerakoak, gaztelaniaren aldeko inertiak sendo irauten duelako ohituretan eta jokaeretan.

Hori gogoan hartuta sartu ditugu, hain zuzen ere, V. plangintzaldirako Erabilera Planean goi kargu politiko eta erakunde ordezkarien jardun publikoari begirako hizkuntza irizpideak.

Amaitzeko, beraz, esandakotik garbi ondorioztatzen da Eralan eta Aldahitz programek garapen berritzaileak behar dituztela. Lantzeko alor garrantzitsua dugu hori, eta Soziolinguistika Klusterrarekin bere garaian –denbora asko ez dela- egin genuen lan-saioaren bidetik jarraituko dugu lankidetzan, aurrerantzean ere. Elkarrekin berrituz. Elkarrentzat berrituz. Bakarka ezer gutxi egin baitezakegu; elkarrekin, asko.